



12. Giza eskubideei buruzko gogoeta:

Existitzen al ziren giza eskubideak 1948ko Giza Eskubideen Hitzarmen Unibertsalaren aurretik?

*Giza eskubideak gizaki orok ditugun eskubideak dira; gizaki izate hutsagatik ditugu. Eskubide horien atzean hainbat funtsezko balio daude, bere antolakuntza politikoa eta juridikoa demokratikotzat jotzen duen gizarte orok defendatu beharreko balioak. Pertsona orok ditu eskubide berberak, bereizketarik gabe, edozein dela ere arraza, sexua, orientazio sexuala, erlijioa, iritzi politikoa, estatusa, etnia, jatorri nazionala edo beste edozein baldintza. Giza eskubideen atzean bi ideia nagusi ditugu: a) lehenik eta behin, pertsona orori dagokion duintasun estandar bat da eta b) bigarrenik, pertsonen duintasunaren defentsan, botereari ezarritako muga bat dira giza eskubideak.

Baina giza eskubideak pertsona orok jaiotzatik gizaki izate hutsagatik dituen eskubideak baldin badira, zergatik hitz egin behar dugu sortu zireneko data edo momentu hartaz? Alegia, ez al zen giza eskubiderik existitzen Frantziar Iraultza aurreko gizartean? Erantzuna baiezkoa da, zalantzarik gabe, Ilustrazio aurreko gizakiak ere eskubideak zituen. Ondorengo lege edo testu juridikoek formulazio egoki bat baino ez dute eman eskubide horiek ulertzeko. Pertsonak berezko dituen eskubideak dira giza eskubideak; beste gauza bat da eskubide horiek lege testuetan positibizatuak agertzea, eta errealitatea izan daitezen beharrezkoa da horiek kodigo batean biltzea, edo nazioarteko testuez mintzo bagara, beharrezkoa da arlo horretako erakunde legitimatuak onartzea. Hor kokatzen da testu juridikoen garrantzia. Parlamentuetan berresten edo gobernuetan sinatzen direnean, konpromisoa hartzen dute estatuko barne legeak nazioarteko testu horietara egokitzeko, eta nazioarteko auzitegien epaiak gauzatu behar izaten dituzte. Adierazitakoaren arabera, giza eskubideak zein diren jakitearen garrantzia uler dezakegu, baina, eskubideak eduki arren juridikoki gauzatu ezin badira, ezinezkoa izango da horiek defendatzea.

*Asmoz Fundazioaren testua honako hauen eskutik: Iker BARBERO GONZÁLEZ EHUko Zuzenbideko doktore, Juana Mari ASTIGARRAGA ZULAIKA Arartekoaren erakundeko saileko teknikari laguntzailea eta EHUko Zuzenbideko doktore eta Iker NAVASCUÉS MARTÍNEZ DE EULATE EHUko Ekonomia eta Enpresa fakultateko Zuzenbide administratibo, konstituzional eta zuzenbidearen filosofiako irakaslea eta EHUko Zuzenbideko filosofian doktore.

[Testu osoa irakurtzeko \(gazteleraz\). klikatu hemen](#)